



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2016/05/03

## **Munduko kooperatiba talde handieneko zuzendaritza taldeko kideek Gernikako Batzarretxea bisitau dabe**

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak Japanese Consumers Cooperative Union (JCCU) taldeko, mundu osoko kooperatiba handieneko, zuzendaritza taldea jaso dau gaur goizean. Japoniako ordezkariaren buru, Toshiaki Wada Zuzendari Nagusia izan da.

Japoniako erakundea aste osoan egongo da Euskadin bisita ofizialean, gure enpresa egiturea, Euskadiko kooperatiba eredia eta euskal kultura zuzenean ezagutzeko. Taldeko zuzendari nagusiaz gain, Nazinoartekotze zuzendaria, Hiroshimako ordezkariaren zuzendaria, elikadura saileko zuzendaria, ikerketa arduraduna eta taldeak Genevako ILO kooperatiban dauen ordezkaria be etorri dira.

Japoniako ordezkariaren baterra, Origamiak egitasmoaren barruan abuztuan Hiroshimara joan ziran Gernikako umeak be etorri dira. Alkarregaz Bizkaiko batzarretako egoitzaren barruti nagusiak bisitau ditue, Ana Otadui lagunduta. Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak bere gogoia adierazo dau, denpora gitxi barru Gernikako Arbolaren kimu bat Hiroshiman hazi daiten, une honetan edo laster, gerrek eragindako sarraskiaren enblema diran beste leku batzuetan egiten dauen moduan, Gurseko kontzentrazio eremuan, Bordele askatzeko burukatu ziran Gernika bataloiko gudariak hil ziran lekuan edo Auschwitz sarraski gunean, besteak beste.

Batzar Nagusietako Presidenteak bere interesa erakutsi dau gure Haretxaren leinuak bere sustraiak Hiroshiman zabaldu daizan “1945eko bonba atomikoa bota eta urte betera loratzeko gai izan zan Ginkgo biloba sagradutik gertu hazteko”. “Eta Ginkgo bilobaren kimu bat hemen, Gernikan, haztea be gurako geunke”, esan dau.

Japanese Consumers Cooperative Union, Japoniako kontsumitzaileen kooperatiba taldea da. Sektore askotako 571 kooperatibak osatzen dabe: Elikadura (supermerkaduak eta etxeetara elikagaiak erosten dituenak), Osasuna (ospitaleak, pertsona nagusien egoitzak eta etxeetan eskintzen dan laguntzea), Unibersidadeak, Aseguruak, Turismoa eta etxebizitza kooperatibak. 27 milioi kide eta 115.000 behargin ditu, eta urteko fakturazino osoa 25.000 milioi eurokoa da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
03/05/2016

## **Directivos del mayor grupo cooperativista del mundo visitan la Casa de Juntas de Gernika**

La Presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha recibido esta mañana en Gernika al equipo directivo de Japanese Consumers Cooperative Uni0n (JCCU), que está considerada como la mayor cooperativa del mundo. La delegación japonesa ha estado encabezada por su Director General, Toshiaki Wada.

Los directivos de la entidad nipona estarán en Euskadi toda esta semana en una visita oficial para conocer de primera mano nuestro entramado empresarial, el modelo cooperativista de Euskadi y la cultura vasca. Además del director general del grupo, han acudido también el director de Internacionalización, el director de la delegación de Hiroshima, el director de la división de alimentación, la responsable de investigación y la representante del grupo en la cooperativa ILO de Ginebra.

La delegación japonesa ha estado acompañada de niños y niñas de Gernika que en agosto acudieron a Hiroshima como partes del proyecto Origamiak. Juntos han visitado las principales estancias de la sede parlamentaria vizcaína, acompañados de Ana Otadui quien ha expresado su deseo de que pronto un retoño del Árbol de Gernika pueda crecer en Hiroshima como lo hacen ahora o lo harán en el futuro, en otros lugares representativos del horror de las guerras como el campo de concentración de Gurs, el lugar donde murieron los gudaris del batallón Gernika en la liberación de Burdeos o el campo de exterminio de Auschwitz.

La presidenta de Juntas ha mostrado también su interés por que la stirpe del roble foral eche raíces en Hiroshima “para crecer cerca del sagrado Ginkgo biloba, capaz de florecer un año después de la bomba atómica de 1945”. “Y nos gustaría que un retoño del Ginkgo biloba crezca aquí en Gernika”, ha dicho.

Japanese Consumers Cooperative Uni0n es el grupo de las cooperativas de consumidores de Japón. Está formado por 571 cooperativas que incluyen el sector de la Alimentación (supermercados y distribución de comida a domicilio), Sanidad (hospitales, residencias de ancianos y cuidados a domicilio), Universidades, Seguros, Turismo y cooperativas de viviendas. Cuentan con un total de 27 millones de miembros y 115.000 empleados, y una facturación anual total de 25.000 millones de euros.